

Espedientearen kodea: 2024KO230001
Espedientearen gaia: 2024ko Kontratazio Plana
Titularra: OIARTZUNGO UDALA

EBAZPENAREN ZIURTAGIRIA

Xabier de la Mota Vazquez, Oiartzungo Udalaren idazkari naizenak:

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2024/01/31ean, beste batzuen artean ondorengo akordioa hartu zuela:

“2024KO KONTRATAZIO PLANAREN ONARPENA

Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen -zeinaren bidez ordenamendu juridikora ekartzen diren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioak- 28.4. artikuluan xedatutakoa betetzeko, idazkaritza sailetik errekerimendua egin zaie udaleko sailei 2024. urtean lizitatzea aurreikusten duten informazioa eman dezaten.

Udaleko sailetatik emandako informazioaren arabera, Oiartzungo Udalaren 2024rako Kontratazio Plana egin da. Plan horrek barne hartzen ditu bai erregulazio harmonizatuari lotuta aurreikusitako kontratuak, bai erregulazio horri lotuta ez daudenak, eta, horietako bakoitzari dagokionez, honako datu hauek: kontratuaren helburua edo izena, kontratu-mota, aurreikusitako zenbatekoa, iraupena eta prozedura mota.

Edonola ere, **plana aurreikuspen** hutsa da, hau da, ez du behartzen erlazioak barne hartzen dituen kontratu guztiak lizitatzera edo iragarritako baldintza zehatzekin lizitatzera; beraz, ematen dituen datuak ez dira lotesleak.

Horregatik guztiagatik, kontratazio Saileko teknikariak egindako txostenaren baitan eta Antolaketa eta Beste Kontuen batzordeak 2024ko urtarrilaren 17an emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Osoko Bilkurak honako akordioa hartu du:

AKORDIOA

Lehen.- 2024ko Kontratazio Plana onartzea, eranskinean jasotzen dena.

Bigarrena.- 2024ko Kontratazio Plan hori Oiartzungo Udalaren kontratatzailearen profileen argitaratzea, bai eta Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean, SPKLren 28.4. artikulua zehaztutako moduan.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera, Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Idazkariak
Xabier de la Mota Vazquez

O.E.
Alkateak



OIARTZUNGO
UDALA

2024 URTEKO KONTRATAZIO PLANA

2024 KONTRATAZIO PLANA								
ZK	SAILA	XEDEA	MOTA	BALIO ZENBATETSIAREN AURREIKUSPENA (BEZa gabe)	IRAUPENA	HARMO- NIZATUA	PROZEDURA MOTA	LIZITAZIORAKO AURREIKUSPENA
1	Obak eta zerbitzuak	Hiru proiektu gauzatzea: Altzibar, Karrika eta Elizalde	Zerbitzua	300.000 euro	2 hilabete	BAI	Irekia	Otsaila
2	Obrak eta zerbitzuak	Madalensoroko aparkalekuen lehiaketa	Pribatua	11.726, 84 euro	5 urte (2028/12/3 1 arte)	EZ	Irekia eta lehiaketa bidez	Otsaila
3	Obrak eta zerbitzuak	Altzibar auzoko aparkalekua zabaltzea	Obra	255.000 euro	2 hilabete	EZ	Irekia erraztua	Martxoa
4	Obrak eta zerbitzuak	Ugaldetxoko futbol zelaia berritzea	Obra	1.618.000 euro	6 hilabete	EZ	Irekia	Apirila
5	Obrak eta zerbitzuak	Rafael Pikabea hiribidea urbanizatzea	Obra	571.245 euro	4 hilabete	EZ	Irekia erraztua	Apirila
6	Obrak eta zerbitzuak	Trantsizio energetikorako proiektuak (eguzki- plakak, argiteria)	Hornidura	200.000 euro	3 hilabete	EZ	Irekia	Maiatza
7	Obrak eta zerbitzuak	Altzibar auzoko gun estalia	Obra	1.231.500 euro	6 hilabete	EZ	Irekia	Maiatza
8	Obrak eta	Haurren jolas-eremuak eta aire zabaleko fitness eta kirol-ekipamendua duten			2 urte,			



OIARTZUNGO
UDALA

	zerbitzuak	eremuak ikuskatzeko, mantentzeko eta konpontzeko zerbitzua	Zerbitzua	100.000 euro	urtebeteko bi luzapenekin	EZ	Irekia erraztua	Ekaina
9	Urak	Ur kontagailuen hornidura	Hornidura	30.250 euro	Urte 1	EZ	Irekia oso erraztua	Otsaila
10	Urak	Ertzainen biribilgunetik Arraguako biribilgunera bitarteko hoditeriaren aldaketa	Obra	375.000 euro	3 hilabete	EZ	Irekia erraztua	Maiatza
11	Urak	Gurutzeko hoditeria	Obra	70.000 euro	2 aste	EZ	Irekia oso erraztua	Ekaina
12	Giza baliabideak	Oiartzungo udal langileentzako lanerako arroparen hornidura	Hornidura	95.530,89 euro	2 urte, urtebeteko bi luzapenekin	EZ	Irekia erraztua	Apirila
13	Giza baliabideak	Formakuntza-prestaketa Gizarte Zerbitzuentzat eta etxez etxeko langileentzat	Zerbitzua	24.000 euro	Urte 1, urtebeteko 3 luzapenekin	EZ	Irekia erraztua	Apirila
14	Berdintasun saila	Jaietako arreta zerbitzua	Zerbitzua	32.000 euro	Urte 1, urtebeteko 3 luzapenekin	EZ	Irekia erraztua	Otsaila
15	Berdintasun saila	Idazkaritza teknikoa udal berdintasun planerako	Zerbitzua	22.000 euro	Urte bat	EZ	Irekia erraztua	Martxoa
16	Berdintasun saila	Empalabramiento gizarte esku hartze proiektua	Zerbitzua	28.000 euro	Urte 1, urtebeteko 3 luzapenekin	EZ	Irekia erraztua	Apirila
17	Gizarte zerbitzuak	Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo	Zerbitzua	152.000 euro	2 urte, urtebeteko 2	EZ	Irekia	Martxoa

		psikosozialean esku hartzeko zerbitzua			luzapenekin			
18	Gizarte zerbitzuak	Zaintzadi – zaintza ekosistema publiko-komunitario proiektua	Zerbitzua	380.400 euro	Urte 1, urtebeteko 3 luzapenekin	EZ	Negoziatua	Maiatza
19	Informatika	Hainbat software lizentzien erosketak	Hornidura	115.202,79 euro	Urte 1, urtebeteko 2 luzapenekin	EZ	Irekia erraztua	Martxoa
20	Informatika	SOC zerbitzua – Udalaren informazio sistemaren zibersegurtasun monitorizazio zerbitzua	Zerbitzua	85.601,44 euro	Urte 1, urtebeteko 3 luzapenekin	EZ	Irekia erraztua	Uztaila
21	Udaltzaingoa	Abandonatuta dauden animalien bilketarako zerbitzua	Zerbitzua	59.990 euro	2 urte, urtebeteko 2 luzapenekin	EZ	Ireki oso erraztua	Urria
22	Idazkaritza	Hilerriko ehorzketa	Zerbitzua	100.000 euro	2 urte, urtebeteko 2 luzapenekin	EZ	Irekia erraztua	Otsaila
23	Idazkaritza	Erantzukizun zibila/patrimonialaren, ondasunetan izan litezken kalteen eta ekipo elektronikoaren aseguruaren zerbitzua (Lanbarrengo suteen aurkako instalazioen asegurua barne)	Zerbitzua	175.000 euro	2 urte	EZ	Irekia	Abendua



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUeaa94d34-a052-469b-80d6-6678997f8f58**

Dokumentu elektronikoa honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024KO230001-Ebazpena pleno/Ebazpena pleno (OIARTZUNGO UDALA)